

# HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 25 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira.</li> <li>• Bi irakurgai dira eta guztira 25 item.</li> <li>• Lehenengo ariketan item bakoitzak 1,6 puntu balio du eta bigarrenean 0,6.</li> <li>• Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>• Testuen luzera guztira: 850 hitz gehienez.</li> </ul>	35 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ariketa bakarra egin behar da eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</li> </ul>	50 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.
- Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, **zuzentzat da**.

### 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

## OGIA, NEKAZARITZA SORTU AURRETIK

«Kasualitatez» aurkitu zuen Amaia Arranz Otaegik munduko ogi-arrastorik zaharrena. Arkeobotanikaria da, eta Kopengageko Unibertsitatean ari da ikerketa lanetan. Jordaniako Basamortu Beltzean zebilen —natufiar garaiko gizakia aztertzeko, inguru basatietara nola egokitu zen jakiteko— eta duela 14.400 urteko ogi apurrak aurkitu zituen *Shubayqa 1* aztarnategian. Orain arte ezagutzen zen ogi-aztarnarik zaharrena Neolito garaikoa zen, duela 9.100 urtekoa, Turkian atzemandakoa.

Azken aurkikuntzak zalantzan jarri ditu ikertzaile askoren teoriak. Gaurdaino esaten zen Neolitoan sortutako nekazaritzaren ondorioz zirela gizakiak ogia egiteko gai, bi arrazoirengatik: zerealak landatzen hasi zirelako eta gizarteak garatu egin zelako. Arranzen taldeak Jordanian aurkitutako ogi apurrak, ordea, Neolitoa hasi baino 4.000 urte lehenagoak dira. Sasoi hartako gizakiek ez zuten nekazaritza ezagutzen: ehiztari-biltzaileak ziren. Beraz, oiloaren eta arrautzaren dilemaren antzekoa da: zer izan zen lehenago, ogia ala nekazaritza? Zer da zeren ondorio? Arranzen gogora ekarri duenez, aditu batzuek uste dute nekazaritza ogiaren ondoren sortu zela, eta ez alderantziz. Haien iritziz, gizakiaren elikaduran «produktu bereziak» izan ziren ogia eta garagardoa. Horregatik, elikagai horien ekoizpena handitu egin behar izan zuten; zereal gehiago landatzen hasi, eta nekazaritza sortu zen. Teoria horren defendatzailea da Brian Hayden ikertzaile ezaguna.

Amaia Arranzen espezialitatea landareen azterketa da, eta esan du «pozez zorutzen» zegoela *Shubayqa 1*-eko indusketaren emaitzekin: «Ikatz, tuberkulu eta hazi pila bat aurkitu genituen, eta hori ez da ohikoa garai horretako aztarnategietan». Materialak analizatzen hasi, eta konturatu zen ez zekiela zer ziren arrasto horietako batzuk. Halakoetan ohikoena da arkeologoek material ezezagunak alde batera uztea; baina oraingoan —«kuriositateak» bultzatuta— erabaki

zuen arrasto horiek ez baztertea. Londresen zegoela, laborategian, Lara Gonzalez Carretero topatu zuen, elikagai arkeologikoen ikerketan espezializatutako aditu bat. «Mahai gainean zeuden aztarnak ikusi zituenean, ogia zela esan zuen». Segituan identifikatu zituen arrastoak. Izan ere, ogiaren bilakaeraren inguruko tesia egiten ari da Gonzalez. Arranzen dio biezat «sorpresa izugarria» izan zela, eta hasieran «ikaraz» hartu zutela berria.

Halere, Arranzen ustez, goizegi da ezer demostratu ahal izateko: «24 janari-arrasto bakarrik ikertu ditugu, eta lan handia dago aurretik; oraindik ezin dugu esan elikagai horiek bereziak direnik». Ikertzen jarraitzeko asmoa dute, hainbat «galdera potolori» erantzuteko. Arranzen espero du aurkitzea zer elikagai jaten zuten natufiar garaiko gizakiek, eta, hori jakinda, informazio gehiago izango dute etxekotzearen eta nekazaritzaren inguruan. Azken aurkikuntza «guztiaren hasiera» gisa ikusten du arkeobotanikari tolosarrak.

Arkeologiaren zientzia aski ezaguna da; ez, ostera, arkeobotanikarena. Amaia Arranzen nabarmendu du landareak «baztertutako elementuak» izan direla historian: «Ez dugu gauza bera sentitzen animalienengatik eta landareengatik. Iruditzen zait hori hezkuntza-arazo bat dela». Espero du hori aldatzea. Ikerlanaren harrera ikusita, uste du arkeobotanikak pisu handiagoa hartuko duela: «Beti entzuten dut landareak ez direla kontserbatzen, baina landareak aztertzeko jarraitu behar dugu eta gauza txikiei gehiago erreparatu».

**ARTOLA, L. Berria, 2018ko uztaila. Egokitua**

## 1. ariketa. Aukeratu erantzuna

### 1. Zer ikertzen ari zen Arranz Jordanian?

- a) Han aurkitu zituzten ogi-aztarnarik zaharrenak.
- b) Neolito garaiko gizakiak nola bizi izan ziren.
- c) Bertakoak nola egokitu ziren Basamortu Beltzera.

### 2. Zer erakusten du Arranzen taldearen aurkikuntzak?

- a) Neolitoko gizakiak, ordurako, nekazaritza ezagutzen zuela.
- b) Nekazaritzaren historiaren inguruko kontakizuna alda daitekeela.
- c) Ogiaren ekoizpena gizarte garatu baten ezaugarria zela.

### 3. Zer erabaki zuen Arranzek arrastoak zer ziren ez zekienean?

- a) Jakin-nahiak bultzatuta, oraingoan alde batera ez uztea.
- b) Material ezezagunarekin egin ohi denez, ikertzen jarraitzea.
- c) Elikagai arkeologikoetan espezializatutako aditu bati galdetzea.

### 4. Zer dio Arranzek aurkikuntzaz?

- a) Aurkikuntza handiago baten hasiera izan ahal dela.
- b) Garai hartako nekazaritzaren froga ukalezina dela.
- c) Natufiarrek jaten zutenaren ebidentzia argia dela.

### 5. Zergatik da aski ezezaguna arkeobotanikaren zientzia?

- a) Jakina denez, landareak ezin izaten direlako kontserbatu.
- b) Historian landareei ez zaielako merezitako garrantzia eman.
- c) Arkeologiaren zientziaren zati txiki bat baino ez delako.

## 2. ariketa

**Hutsuneak bete.** Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

### GIZARTE-ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA EZAGUTZEKO WEB-GIDA

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak web-gida bat sortu du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eta haren edukia ezagutzera emateko. Web hori **6** da eta honako esteka hauen bidez bisita daiteke: *euskadi.eus/gizartezerbitzuak* eta *euskadi.eus/serviciosociales*.

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak esan du gizarte-zerbitzuen **7** ematea dela gida horren helburua eta horretarako modu **8** dela «gida bizia sortzea, eguneratu daitekeena eta herritar ororentzat **9** dagoena».

Gidak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duten prestazio eta zerbitzuen **10** buruzko informazioa eskaintzen du. Sistema unibertsala da, zuzena, erantzukizun publikokoa eta **11** mistokoa, eta herritarren esku jartzen du pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzeari, autonomiari eta gizarte-ongizateari **12** emateko arreta-sare publikoa, funtsean pertsonalak eta erlazionalak diren prestazio eta zerbitzuen bidez. Titulartasun publikoko (udalen, mankomunitateen, foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren bidez) eta titulartasun pribatu **13** prestazio, zerbitzu eta ekipamenduek eratzen dute.

Web horrek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari jaso diren zerbitzu eta prestazioak bederatzi arlo **14** banatzen ditu, informazioa arin bilatzeko: Biztanleria guztia; Mendekotasuna / mendekotasun-arriskua; Gizarte-bazterketa / bazterketa-arriskua; Babesgabetasuna / babesgabetasun-arriskua; Gizarte-larrialdiak; Genero-indarkeria; Desgaitasun fisikoa / adimen-desgaitasuna / zentzumen-desgaitasuna; Gaixotasun mentala / nahasmendu mentala; eta Familia-ingurunea. Arlo bakoitzean sartzean, herritarrek euskal erakundeek duten **15** ezagutu ahalko dute.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak **16** du «Euskadiko herritarrek zerbitzu horietara jotzeko eskubidea dutela»; **17**, «legeak bermatzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Katalogoan jaso diren prestazio eta zerbitzuen unibertsalizazioa». Sailburuak honako hau esan du: «Azken hamarkadetan, euskal erakundeek –udalek, aldundiek eta Gobernuak– sare bat **18** dute, gizarte-premiei erantzuten zaiela bermatzeko». Arreta-sare horrek erabiltzaileak ditu **19**, ikuspegi komunitarioa du, hurbileko arreta eskaintzen du eta pertsona bere ohiko bizitza-ingurunean egoteari ematen dio lehentasuna.

Informazioa **20** ondoren, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak publizitate-kanpaina diseinatu du webaren berri emateko eta gizarte-zerbitzuen garrantzia azpimarratzeko.

**21**, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak nabarmendu du gizarte-zerbitzuek, **22**, «hobetu egiten dutela pertsonen bizi-kalitatea, gizarte-premiei erantzuten dieten prestazio eta zerbitzuak ematen dituztela, baita segurtasuna ere kontingentzia edo arrisku batzuen aurrean, autonomia pertsonala **23** dutela eta harreman-loturak, lotura komunitarioak eta, azken batean, gizarte-kohesioa eraikitze bide ematen dutela. **24** finkatzeko daude diseinatuta, hark lau zutabe dituela aintzat hartuta: hezkuntza-sistema, osasun-sistema, pentsioen sistema eta gizarte-zerbitzuen sistema».

«Gizarte Zerbitzuak, zure eskura» **25**, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak publizitate-kanpaina hasi du, eta datorren hilera arte iraungo du.

<[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)> 2018ko maiatza. Egokitua

### 2. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

6. a) aniztuna  
 b) gorpuzduna  
 c) elebiduna  
 d) akastuna

7. a) berme  
 b) hitz  
 c) berri  
 d) leku

8. a) iraunkorrena  
 b) eraginkorrena  
 c) aldakorrena  
 d) sentikorrena

9. a) jasangarri  
 b) mesedegarri  
 c) ikusgarri  
 d) eskuragarri

10. a) multzoari  
 b) mozkinari  
 c) zioari  
 d) ondareari

11. a) kudeaketa  
 b) urraketa  
 c) alderaketa  
 d) hausnarketa

12. a) ostatu  
 b) kargu  
 c) ospe  
 d) bide

13. a) isilpeko  
 b) itunpeko  
 c) giltzapeko  
 d) gerizpeko

14. a) bereizitan  
 b) kontrajarritan  
 c) gorenetan  
 d) iragazitan

15. a) ekarpena  
 b) eskaintza  
 c) eragiketa  
 d) emanaldia

16. a) iraunarazi  
 b) harrarazi  
 c) gogorarazi  
 d) betearazi

17. a) batik bat  
 b) dena dela  
 c) batez beste  
 d) izan ere

18. a) eratu  
 b) txertatu  
 c) islatu  
 d) artatu

19. a) traba  
 b) oinarri  
 c) izapide  
 d) ondare

20. a) zabaldu  
 b) igorri  
 c) batu  
 d) arbuia

21. a) Hurrenez hurren  
 b) Hala nola  
 c) Horren ondorioz  
 d) Hori horrela

22. a) behinik behin  
 b) ostera  
 c) besteak beste  
 d) osterantzean

23. a) sustatzen  
 b) baieztatzen  
 c) gailentzen  
 d) salbuesten

24. a) Aldarrikapena  
 b) Esamesa  
 c) Aurreiritzia  
 d) Ongizatea

25. a) ardurapean  
 b) lemapean  
 c) zaintzapean  
 d) agintepean

### Oharrak

- Ondoren, **idazmenerako ariketa** duzu.
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
  - Ideiak garbi adierazi dituzun.
  - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.**  
**EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.**

### Ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako

- **Egoera kontuan hartu** eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- **Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

**EGOERA:** Azkenaldiotan izandako etxeen okupazioak direla eta, zenbait herritan auzokoek berek egin diete aurre etxeak okupatzen dituztenei. Egindako presioagatik lortu dute okupatzaileek etxebizitza horiek uztea eta okupazioaren auzia berriro mahai gainean jartzea.

Gaiaz kezkatuta, iritzia ematea erabaki duzu herriko aldizkarian.

### GAIA: OKUPAZIOAREN AURREAN, HERRITARREN PRESIOA

2018. urtera arte etxebizitza berreskuratzeko modu bakarra bide penala zen eta jabearentzat errazagoa eta azkarragoa zen okupatzaileari dirua ordaintzea.



2018ko legeari esker, jabeek denborarteko laburrean eta kostu gutxiagorekin berreskuratu ahal dute etxebizitza; baina, askoren ustez, justizia oraindik motela da eta okupatutako etxeen aurrean protesta egiten dute.

Etxebizitza hutsak ez ezik, hutsik ez daudenak ere okupatzen hasi dira eta horrek areagotu egin du jendearen ezinegona.

- Zergatik gertatu da eta gertatzen da okupazioa? Bidezkoa deritzozu?
- Zer alde dago lehengo eta oraingo okupatzaileen artean?
- Zer deritzozu zenbait herritan auzokoek egindakoari?
- Zein da Administrazioaren erantzukizuna auzi honetan?

Zirriborroetarako lekua



Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1 ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «Ogia, nekazaritza sortu aurretik»

1.	C	2.	B	3.	A
4.	A	5.	B		

■ **2. ariketa:** hutsuneak bete.

■ **Irakurgaia:** «Gizarte-zerbitzuen euskal sistema ezagutzeko web-gida »

6.	C	7.	C	8.	B
9.	D	10.	A	11.	A
12.	D	13.	B	14.	A
15.	B	16.	C	17.	D
18.	A	19.	B	20.	C
21.	D	22.	C	23.	A
24.	D	25.	B		